

## Iragarrita zegoen eraso

**EGUNKARIA** prestatzen hasi ginenetik jakina zen oztopoak izango genituela; batez ere ekonomikoa, noski, baina baita laster agertu zen beste bat ere: euskal egunkarian «MVLNek izan zezakeen hegemonia» apuntatzen zuen norbaitek artikulatu batean (1990go abuztuak 14); bost egun gero neronek erantzun nion *Deian* bertan euskararen egitasmo berri honen kritikan agertzen ziren prejuizioak aipatzen, eta geure helburua euskara zenez gero aurreritzi hau uxatu nahian prejuizio hori zentzuzki erantzun eskatuz, erantzun lanak elkarrekin zuzen egiten saia gintezen.

Gero, lanean ari ginela, eta Euskaldunen EGUNKARIA 1990 bertako abenduan kalera irten eta gero ere bai, berriz, eskaini genion partaidetza Jaurilaritzako Kultur Sailari.

Ez dugu oraindik erantzunik jaso.

Gauzak honela, 1991go uztaileak 10 zituela, EGUNKARIA bere 184. alean, Joseba Arregi jaunak prentsaurre bat eskaini zuen ordurarte Kultur Saileko egunkariaren arduraduna, J.R. Beloki, Gipuzkoako Diputazioan beste kargu bat hartzeko egitasmo honetatik kanpora geratzen zela adierazteko; eta bertan honetan Beloki jaunak izan zuen aukera iragarpen baten antzera hau esateko, «tentazio baten berri emango dizuet... Ez dakit zer egingo dedan, baina igual bidaliko diet dokumentu fotokopiatu bat nere tarjetarekin...» Hau kazetari jakinminduen aurrean aidea geratu zen. Gauzak honela, egun bereko arratsean neronek entzun nuen etxean ETBren gaueko berri zerbitzua erdarazko emanaldian, az-

ken berri bezala, hau: «EUSKALDUNON EGUNKARIAren zuzendariaren izendapena ETako buruzagien oneritzi egin omen zela ulertu daiteke, Frantzia atxilotutako ETA-ri harrapatutako dokumentazioan».

Eta besterik gabe amaitu ziren berriak.

Ni neu aho zabalik geratu nintzen. Kezkak, noski, «oneritzia», «omen zela» eta «ulertu daiteke», kondizio askotako esaldia zen; baina entzundakoa buruan bueltaka hasi nintzanean konturatu nintzen ez nintzela gogoratzen fermuki nola esana izan zen. Ez nion inori deitu hurrengo egun, eta Joxemiel Zumalaberi entzundakoa nolabait pasa nioean, ez nintzen ausartzen nire hitzak baieztatzea. Hasi ginen galdezka, eta pertsona gutxi entzun zuen hau, euskaraz eta erdaraz, emana izan bazen ere. Eta neuk eskatu nion, EGUNKARIAko zuzendari den Pello Zubiriari zintaren grabazioa eska zezala. ETBek eman zizkigun biak; euskarazkotik jaso dituz hitzez-hitz idatzi berri dudana.

Geroztik, uztailearen 24ean, Santio bezperan, argitaratu zuen Barcelonako *El Periódico* egunkariak, bere Politika orrialdean titulu honen azpian: «ETA controló la salida de un diario», eta honen azpian, lehengo «omen» guztiak ezabaturik orain, amarillismo mafioso batean gauzak polizia nahi bezala gertatu baitliran. Eta hurrengo egunean, 25an, *Navarra Hoyen*, erantzupidaren izpi bat ere gabe Cataluniakoari kopiatuz: «ETA controló la salida del periódico EGUNKARIA».

Hara nola gertatu diren gauzak. Beste egunkarietara ere «filtratuko» zuen hortarako

gai izan zenak material bera, baina ez dira hain errazki lohian sartu.

Zer esanenez gezur honen erabilera honetaz?

Nik, neure aldetik, hau: Zuzendari bila emandako pauso guzti horietan egon naizela; banan bana zuzendaritzarako eskaintzak egiten jardun genuela asteak zehar, eta ez zuela inork hartu; ba, denak profesionalak izanik, bakoitza bere lanetan zebilelako, bat, eta, bi, baliteke Egunkari euskaldunak eskaintzen zien iraupenaren garantia handiegia ez zela. Euskararen bideak denak baitira ahulak eta arriskugarriak. Bi arazo hauek normalak izan ziren, eta ez zen honetaz ETako norbait bakarrik enteratuko, beste talde politikoak ere bai, noski, ez genuen eta hainbeste jende ikutzerakoan diskreziogehiago izaterik izan. Geure herriko alderdiek denek jakin zuten zertan gabiltzan, eta Kultura Saileko egunkariaren arduradun zirenak ere bai, eta besteak. Hauek bere garaian jakin zuten. Eta orain polizia espainoleko «filtrazio» honek diona zer da? Hori bera, kanpotik norbaitek jaso zuena. ETak honelako informazioa behar bazuen, barruan ez egotearen seinale garbia da. Diruz ere ez ginen ibili ginen eta gabiltzan bezala ibiliko.

Baina nork jarri du martxan polizia jasotako eta gero gezur txarrera joan den informazio soil hau?

**MARTIN UGALDE**

EGUNKARIA S.A.-KO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

## EGAn zein gaitasun neurtzen ote den?

**TOLOSAKO** Laskurain Ikastolako irakasle batzuk EGUNKARIAN (noiz?) eta *Eginen* (1991-07-16an) aireratutako idazkia dut gogoan.

Puntu asko aipatzen dira bertan; beharrezkoena ez, agian. Ez dagokit niri erantzuna puntuz puntu ematea, bertako hainbat eta hainbat xeberkeria azpimarra nezakeen arren.

Bi gogoeta egin nahi nituzte soilik.

Bata. D eta B ereduak ikastetxe askotako irakasleek gaintzen dute EGA. Kalifikazio-fitxak begiratu besterik ez. Laskuraingoek (guztiak?) huts egin omen dute. Zergatik?

Bestea. EGAn zein gaitasun neurten ote den? Aipatu irakaslearen arabera, eskolan ematen den hizkuntz gaitasuna neurtu beharko luke EGAK; badirudi, ondorio hori atera daitekeela beraien idazkitan: beren ikasleek hizkuntz gaitasunaren erantzule bakartzat edo hartzen dute eskola. Nik, berriz, neure aldetik, ikuspegi glotodidaktiko guztiz herre-

na deritzot horri. Eskolak bakarrik ezin eman du, orohar, eta maila sozialean, trebetasun linguistiko erabateko eta guztiz jatorrik, ez entzumenari eta mintzamenari dagokionez, ezta idazmenari dagokionez ere; beti ere, esan bezala, arazoa maila sozialean hartzen dut eta ez indibidualean. Hizkuntzaren ikaste/irakaste prozesuan zerbaitegatik aipatzen dira murgilketaren egokitasuna (ala, beharra?), hizkuntz ingurumari naturalean bizi beharra, e.a. Esan nahi da, ikaste/irakaste formalez gain, beharrezkoa dela eskolan eman ez daitekeen moduko eta mailako (eta kalitateko) komunikazioa: komunikazio-aukera alegia eta komunikazio-iharduera (pleonasmota eta guzti).

Horiek horrela, EGAK zer gaitasun neurten duen? Ba, azterketetan matematikarik ez dagoenez, are gutxiago eskuarte gaitasuna, «neurri bateko komunikazio-gaitasuna», esango nuke: bai idazmenean eta idatziaren ulermenean, bai mintzamenean. «Neurri batekoa» esateak ez dakarren zehaztasuna, az-

terzaile guztiak azterketari guztiak neurri bera edo berdintasun emateak dakarke.

Bukatzeko, esperientziaren arabera, esan daiteke, trebetasun-maila egokirik lukeen azterketaririk ez dela gelditzen EGA azterketan maila aitortu gabe; mailarik ez duen bati maila aitortzea gerta daiteke, eta gertatu izan da.

Horrenbestez, EGAn hutsegin luketen azterketariei buruz, galdera beste modu batera egin beharko litzateke: zer-nolako lotura eragiten dute irakasleek eskolako euskararen ikaste/irakaste formalaren eta hizkuntza berorren eguneroko (etxeko, kaleko, ikasgelaz kanpoko...) erabileraren artean? Hori argitzen ez den bitartean, ezer gutxi aterako genuke delako azterketaria B nahiz D ereduak dabilelotik.

Eta berriro esan, erabilera hori idazmenean ere oso argi isladatu ohi da.

**DIONISIO AMUNDARAIN**

IDAZLEA


## BERRIAK ZIRI



**INAKI ANASAGASTI**  
EAJko bozeramalea  
Kongresuan  
DEIA  
1991-VII-27

«HBk

elkarrizketa eskatu beharko lioke Erregeari, eta beren eskakizunak onartu ez arren, gutxienez entzun egingo lieke»



**F.FERNANDEZ ORDÓÑEZ**  
Espainiako Kanpo  
Arazoetarako ministroa  
EL MUNDO  
1991-VII-27

«Governuak ez

du inoiz Erregearen irudia instrumentalizatu, ez orain eta ez lehen»



**PAOLO FABBRİ**  
Palermoko Unibertsitatean  
hizkuntzaren filosofiako  
katedraduna  
DIARIO 16  
1991-VII-27

«Diskurtso

politikoa ekikaziaren diskurtso bilakatu da, publizitatekoa bezala»



**RAFAEL BENGOA**  
Sanitatearen Plangintza,  
Antolaketak eta Ebaluaketak  
zuzendaria Eusko Jaurilaritzan  
1991-VII-27

«Sanitatearen

erreformak ez du eraginik izango pentsionisten ekonomian»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

